

Zubietako Mendi Lasterketa - Araudia



1. DATA ETA TOKIA

Zubietako Mendi Lasterketa **2025eko urriaren 11n (larunbata)** ospatuko da, **goizeko 9:00etan** hasita, **Zubietako Plazan** irteera eta helmuga izanik.

2. IBILBIDEA

Ibilbide zirkularra izango da, **12 kilometroko luzerakoa** eta **640 metroko desnibel positiboa** duena. Irteera Zubietatik izango da eta mendiko bideetatik igarota, Zubietara itzuliko da.

3. PARTE-HARTZEA

14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Atingabeek **gurasoen edo legezko tutorearen [baimen](#) sinatua** aurkeztu beharko dute.

4. KATEGORIAK

- **Absolutua:** 2025ean 18 urte betetzen dituztenak edo gehiago.
- **Gazteak:** 2025ean 14 eta 18 urte bitarte dituztenak

5. SARIAK

Sailkapen orokorra – Gizon eta emakumezkoak

1. saria: *****
2. saria: *****
3. saria: *****.

Lehendabiziko zubietar emakume eta gizona.

Sari banaketa 12:00etan egingo da eta amaieran **lunch bat** eskainiko zaie parte-hartzaileei (edaria, fruta eta taloa).

6. IZEN-EMATEA

Gehienez ******** parte-hartzaile onartuko dira.
Izen-ematea <https://inscripcion.kirolprobak.com/inscripcion/zubietako-mendi-lasterketa/>
webgunean egingo da, **ekainaren 25tik urriaren 1ra bitarte**.
Lasterketa egunean ez da izen-ematerik onartuko.

Izen-ematearen prezioa **20€** izango da.

Ez da dortsak aldatetarik onartuko.

Ez da itzulketarik onartuko.

Beste baten dortsalarekin parte hartzea guztiz debekatuta dago.

Izen-emateak honako hauek barne hartzen ditu: lasterketan parte hartzea, istripu eta erantzukizun zibileko aseguru.

7. DORTSALEN BANAKETA

Dortsak jasotzeko bi aukera:

- **Ostirala (urriaren 10ean):** 19:00etatik 20:00etara
- **Larunbata (urriaren 11n):** 08:00etatik 08:30era

Dortsak jasotzeko NAN-a aurkeztea beharrezkoa izango da.
Beste baten dortsala jasotzeko, NANaren fotokopia eta baimen sinatua aurkeztu beharko dira.
Kontsigna zerbitzua egongo da.

8. SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da zintekin eta banderatzoeekin.

9. HORNIDURA-PUNTUA

Lasterketan zehar **likidozko hornidura-puntu** bat egongo da.

Helmugan parte-hartzaileek **edaria, fruta eta talo bana** jasoko dute.

Zaberrontziak egongo dira hornidura-puntuan eta helmugan. Ingurune naturala errespetatzea eskatzen da.

10. KRONOMETRAJEA

Lasterketaren denbora-neurketa **txiparen bidez** egingo da.

11. LAGUNTZA SANITARIOA

Antolakuntzak **laguntza medikua** jarriko du ibilbideko puntu estrategikoetan.

Aldagelak eta dutxak egongo dira behar bezala seinalizatuta.

12. ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak erantzukizuna izango du ibilbide barruan izandako istripuetan.

Ez du erantzukizunik izango korrikalariaren **arduragabekeriagatik** sortutako istripuetan (dortsala gabe, beste baten dortsalarekin, edo ibilbidetik kanpo eginez gero). Halako kasuetan, parte-hartzailea izango da erantzule bere buruari eta besteei eragindako kalteengatik.

Parte-hartze iruzurtia atzemanaz gero (dortsala gabe edo beste batenarekin), bai parte hartzaileak bai jatorrizko titularrak **ezingo dute hurrengo edizioetan parte hartu** eta lasterketatik kanporatuko dira.

13. IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena ematen diote antolakuntzari eta babesten duten enpresei probaren testuinguruan ateratako **argazki eta bideoak erabiltzeko eta argitaratzeko**.

Araudian jasota ez dagoen edozein kontu **antolakuntzak erabakiko du**.